

AINTZIN - SOLAS

Xabier Lete, «Ez dok amairu» taldeko kantaria denez, ezaguna da Euskal Herriko bazterrik geienetan, eta horrek libratzen nau bera ta bere bizitzari buruz jardun beharretik. Bere kantak, ala bere poesia, berdiñak diranez, era berriko protesta gartsuki batean egiñak ditu.

Beraz, poemok gizonaren neurrira taxutuak dituanez, ulerterrezak dira, beren kabuz mintzatzen diranak.

Hiru urte igaro dira Lete ezagutu nuenetik. Eibar-en bildu giñen zenbait idazle eta teatru taldeen zuzendari, erabagi batzuek hartu nabirik, eta X. Lete etorren Oiartzungoaren ordezkari. Hitz gutti egin zuen biltzar hartan, baiñan idea landu ta zeatzak erabili zituen. Bere bidea argi ikusten duanaren gisan mintzo zen. Une hura eta handik laisterrera «Zeruko Argia»n irakurri nituen bere zenbait artikuluren orhoitza ezta gel-ditu zitzaidan ezagutu nuen gazte haren irudiz.

1966-an «Agora» elkargoak eratutako poesi sariketako maiburu nintzen. Beste zenbaiten artean, urte haretan, lau poeta handi presentatu ziren, zein baiño zein obeagoak; ta gertaera hura enetzat pozgarria izan bazen ere, gure larritasunak ere handiak ziren lauretatik bat hautatu beharrez. Metafisika esistentzialez, era absurduz, era konkretuz eta gizarte gaidun funtzionalaren artean ez zen erreza hautapena. Guztiak ziren

onak, bakoitza bere maillan. Baiñan mailla hoi en artean bereizkuntza egitea, neurrizkanporakoa zen. Beraz, zein hautatu? Ene iduriz, beti pentsatu dudanez, hoberenen artean butsa egitea parkamenezkoa da maiburu batentzat, eta nolabait erabaki behar zen. Amaika azterketa eta eztabaidaren ondorean, poesia funtzionalaren alde jokatu genituen gure aburuok: Pekatu zaharrak eta sinismen berria izenekoari eman genion lehen saria. Gero jakin nuenez, Xabier Lete zen bere egilea.

Beste haien artean zergaitik era hortako poesiaren alde? Herria ta bere prolemak aintzat harturik gure artean poesiari tokatzen zaion leku egokia ematearren. Bere sozial gaia osagarri bat izan daiteke hanitz sufritzen duen herriarentzat. Gaiñera, premiazkoa genuen gure mintzaira burgesen eskuetan bakarrik ez egotea. Premiazkoa gure euskal literatura herri behartsuari begira jartzea, herri lokhartuari bere aberri-miña iratzartzeko, herri humillari itzaropenezko kanta eskeintzea, poesiari mespreziozko fama kendurik berriz herriaren ahoetara eramatea, euskera euskaldun behartsuen gogoetan txertutzea. Bertako gai eta poetaren etorria hain justuak bai ziren gizonaren behar hoi en alde, ta hain beharrezkoa gure literaturan lainoetako ametsetatik bizitzaren errealitatera itzuli beharra. Une historiku huntan positibismo beharrean arkitzen gera gauzak aldutuko baditugu herri bezala iraun ahal izateko, gizon guztien arteko justizia baterat abiatu dezagun, «Poeta hoiek» poeman Lete berak argi dion bezala. Horrela erabakitzera beharturik geunden euskaldun seme zintzo bezala jokatzeko. Problemaz beterik bizi geran herri huntan positibismoaren premia bizian arkitzen gera. Ta, hori zen lehen bete beharra.

Bere poesia era berriko poesia sozialaren mugetan dabil. Aipatzen dudan positibismo hunen agiritzat har geneza Lete berak «Zeruko Argia» ren 233 zenbakian, 16-gn. or. (1967-ko dagonillaren 13-koa). Nun erraiten duen: «Poesia, nere ustez, «terapeutica» bat da. Barrun aldeak garbitzeko metodu bat. Eta ez barrun aldeak bakarrik, baitere kanpoak,

hemen gertatzen dan bezela zikin xamarrak dagoztenean beintzat». Ene iduriz hau bakarrik ez da poesia. Hau eta hau baiño gehiago ere bai. Naiz eta poetaren aithortza barnetikako personal bezala agertu, zeren iñoren barnean ez baita ezer lehenago kanpoaldeko girotik sartu ez denik. Mailla huntan ez gatoz guztiz bat Letek egin zituen aithormenekin. Poesia personalkia ere izan daiteke herriari edo kulturaduneri begira egin ditzakeena bezin ona. Poesiak, artea denez, ez du muga zeatzik. Poeta bakoitza berekilaran jardun behar da, bakoitzak bere giroan erroturikako bidea arkituaz.

Era hortara, poeta bakoitzak bere jokera du egizkoa. Letek bere egia arkitu du, besteak bezelakoa ez bada ere, herriaren gogozkoena edo premiazkoena dena. Ta, berak hori landuarren, horrek ez du esan nahi errazoi guziak berakin dituanik. Ala ere, berriz ausartuko naiz esatera gaurkoz premiazkoena dugula bere era ta bere gai hori.

Kontzientzia argiz jokatzen du Letek bere lan guztian, bere literatura ekintzaren jomuga nora dijoan dakienaren gisa, bere barnean sakonduaz esperientziz lortutako egi personalkiz mintzatuz, eta bide batez herri baten egoera ta prolemen lekuko sentitzen delarik. Badirudi bizi geran (edo, obeto esanez, esistitzen geran) gizarte honen molde guziak autsi nahi dituela, baiñan gizonaren dignidade guztiarekin jokatuaz. Lete, bere barne-miunen eskariz da poeta. Ta horregaitik dabil alor huntan hain naharo.

Agirian dago Aresti gandik kutsatua dela, bere eskolatikakoa dela. Hots, Harri eta Herri-kin sortu eta gorpuztu zen Arestiren eskolatik influentziatua. Baiñan bere iturriok handikakoak badire ere, oso bereak ditu Letek, indar berrituz adierazpen baten jabe direnak, naiz mingostasunex edo naiz goxotasunex, eta gaiñera hizkuntza aberats eta kementsu baten jabe dena.

Lete, saritu zen urte berean Euskaltzaindiak bere laguntzaille izendatu zuen. Eta, sariketa hartan presentatu ziren poeta gazte berri bieri

buruz agerrerazi nuen lantxo bat «Jakin» aldizkariaren 22-garren zenbakian, 63/74 orrialdeetan (Arantzazu, 1966).

1967-ko sariketan, «Agora»k eratu hau ere, berriz irabazi zuen Egunetik egunera orduen gurrillean poemarekin. Izen berbau hartu du liburu honentzat, bi urteetako poemarik hoberenekin osotua. Bigarren sari hunek, behar bada, ez zuen lehenengoak haiña merezimendu, era berean egiña zegoalako. Zeren, poetak berakin du era berriak sorthu beharra edo lehengoan obetu beharra. Bigarrenengo huntan zerbait landuago nabaitzen dugunarren, egin duen aurrerapena ttipia izan da. Baiña emaitza onak espero ditugu, zeren gazte da eta bihotz handi batekin zentzu praktikoa bai du. Bigarren sariketa hartan, presentatu zirenen artean, beste bi izanagaitik hoberenen arteko, bata Lete beraren bidetik etorren, bere inguruko zen bai gaiz eta bai egikeraz; eta, bestea ordea, esistentziari buruzko gai sakonez etorri arren, naiz ta ona izan, illunegia izatetik aparte etzuen Lete-renak haiñako gatza eta poesi hizkuntza betegarria.

Poeta onak berekin duten profeta kutsua darama Letek. Aurrerapenak utzi zituen gizarte bati mintzo da, aldakuntzen alde gaxtigatzen dela.

Bere estiluz, bere eraz, zer esan? Berakin du Letek indar adierazgarria, espresiozko indarra, bihotz hunkigarritzko indar berezia. Adimen eta bihotzetikako adore gartsua ez zaio palta. Herriari mintzo denez, ulerterreza da bere gaia, irakurrialde errez konprenituko deguna.

Ez dago zalantzarik Lete-ren poesia artea dela, baiña ez da artea arte hutsaren aldetik begiratuta, baizik objetibidade bati begira. Ez da, ez dira kanpokaldeeri begiraturik bakarrik egiñak, baizik bere barnetiko kezketatik egosiak dire. Eta hau da inportenteena, gaiaren muina poetak berak gogoz bizitzea bere izate guztian. Ta hemen, poetak, herriarekin buruabat egiten du. Horregaitik, ez da ari berekiko hutsean, basamortuetako txoria bezala, ez. Bere inguruari loturik dabil, gizonaren egune-

roko esistentzizko behareri loturik. Ta, gizonari mintzo ez dena ez da iñori mintzo.

Ala ere, arte aldetik, bere jokeretan era bat baiño gehiago bereiztu gentzazke, bere sozial gaiak iñoiz era absurduz nabasturik, bizi geran gizarte hau kritikatur, gertaerak berak absurdu direnez. Dakus «Bide ezkutua», hitzak utsik pillatzen ditu, hitz bakoitzak iduriz duen bere ingurua gogoraziko digutenak, hitz eta beren inguruz lortzen duelarik bertsoen gorputza, eta gorputz bakoitza, bertso libre bakoitza, metaforaz edo esakera gordiñez errematatzen duela. Bigarren parteko poemak, esan dugunex, landuagoak ditu. Poemen muiña ta azala obeto egosiaz. Horregatik, «Bide ezkutua»ko bera ez dirudi zenbait poematan. Lurraren seme zintzoa aberri-miñez nabaitzen da «XVII — Ni bizi naizen lurrean» poema unkigarrian, ideak ongi birilkatuaz. Eta lirika berriz ari zaigu «XVIII — Baztan-go lurra» poeman. Hiru poema hoiek, beste gabe, aski dira poetaren neurri sakona emateko, gaiez eta estiluz.

Amaieran dion bezela, bere iturria noizbait bukatuko da, baiñan bere iturri hori agortu orduko muin-zumoz esperantza ongariaren fruitu emaikorrek ongi bustiko dituen uste osoan gera.
Eibar, 1967-ko Eguberrietan

Juan San Martin
EUSKALTZAINA